

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MENAGARAI-BEOTEGIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Mugaketako administrazio espedientea

Menagarai-Beotegiko kontzejuak, 2025eko ekainaren 19an egindako auzo batzarrean, honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa. Martxoaren 13an hartutako erabakia indarrrik gabe uztea, eragindako lursailaren zati bat ez baitzen sartu egin beharreko mugaketan.

Bigarrena. Katastroko 6 poligonoko 328 eta 329 lurzatieen aurrean eta poligono bereko 2295 lurzatiaren aurrean dagoen Elexalde auzoko Beotegiko elizaren bidearen zati baten mugaketaren administrazio espedientea hastea, Ingenieria Gorosti Neurketak enpresak 2025eko martxoaren 31n idatzitako memorian oinarrituta.

Mugaketaren xedea da zati horretan jabetza pribatua jabari eta erabilera publikoko bidetik bereizten duen lerroa mugatzea, eta, hala badagokio, egiaztatzea ea badagoen 33,93 m² inguruko azalera bat eta 2,94 m²-ko beste bat, bide publikoaren zati izan baina katastroko lurzati-tietan oker jaso direnak, ofizioz berreskuratzeko.

Hirugarrena. Neurketa lanak hasteko 2025eko azaroaren 4a ezartzea. Lan horiei mugatu beharreko bidearen zatiaren hasieran, landa katastroko 6 poligonoko 328 lurzatiaren ondoan, ekingo zaie. Neurtze lanak Ingenieria Gorosti Neurketak enpresak zuzenduko ditu, eta goizeko 10:00etan hasiko dira lehendakaria eta fede emaila bertan daudela.

Mugaketa espedientean interesa duten partikularrak gaian adituak diren perituez lagunduta bertaratu daitezke, gastu horiek beren gain direla.

Laugarrena. Espedientea jendaurrean jartzea eta erabaki hau jakinaraztea lursail publikoaren mugakide diren jabeei, eta neurtze lanak hasi baino 60 egun baliodun lehenago argitaratzea, ALHAOn eta Menagarai-Beotegiko toki erakundearen iragarki taulan.

Espedientea jendaurrean dagoen bitartean, interesa dutenek Aiarako Udalaren bulegoetan, Arespalditzan, izango dute eskuragarri, jendea atenditzeko ordutegian.

Bosgarrena. Interesdunei jakinaraztea, haien eskubideak frogatu eta aldezteko egoki jotzen dituzten alegazioak eta agiriak aurkeztu ahal izango dituztela, administrazio batzar honi zuzenduta, Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarrean nahiz Aiarako Udalaren bulegoetan, neurtze lanen hasiera baino hogeit hamar egun lehenagora arte. Epe hori igaro eta gero, ez da onartuko ez agiririk, ez alegaziorik.

Administrazio batzarrak dagokiona erabakiko du agirien eta gainerako frogen gainean, horiek aurkezteko epea amaitu eta mugaketa hasteko ezarri den egunaren bezpera arte, eta dagokion bezala jakinaraziko zaie interesdunei.

Seigarrena. Ezarritako egunean, aipatutako tokira joango dira Ingenieria Gorosti Neurketak enpresako zerbitzu teknikoak, zeinek xede den erabilera eta jabari publikoko auzo bidearen mugak zehaztasunez ezarri eta planoa egingo baitute, bertan direla administrazio batzarreko lehendakaria eta fede emaila, zeinek akta egingo baitute. Aktak Ondasunen Arautegiak 64. artikuluan adierazitako erreferentzia guztiak jasoko ditu eta bildutako guztiek sinatuko dute.

Gero, kontzejuaren bilkuran mugaketa ebazteko erabakia onetsiko da, zeina betearazlea izango baita, eta administrazioarekiko auzibidean aurkaratu ahal izango da.

Mugaketa onesteko erabakia irmoa denean, mugarritze lanak hasiko dira, interesdunak tartean direla.

Zazpigarrena. Erabaki honen aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, izapide hutsa baino ez delako; edonola ere, egokitzat jotzen diren ekintzak gauzatu ahal izango dira.

Menagarai-Beotegi, 2025eko ekainaren 20a

Lehendakaria

ZIORTZA URIARTE ALDECOA